



50.

DA!

Durangoko
AZOKA #50

IPARRALDEKO ARGITALETXEEN EKOIZPENAK
KATALOGOA

www.durango.eke.eus
www.durangokoazoka.eus

DURANGOKO AZOKA #50 2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra IPARRALDEKO EGITURAK

Aurten, Euskal kultur erakundeaz gain, Iparraldetik 11 egitura izanen dira azokan: 4 argitaletxe, 4 ekoizpen etxe eta bestelako 3 egitura. Iparraldeko partaide guzi hauek, espazio bateratu batean elkartuak dira urte guziz bezela (Goienkale 22 - 34).

Argitaletxeak: Maiatz, Ikas, Gatuzain, eta Zortziko

Ekoizpen etxeak: Agorila, ZTK, Saroia, eta Moï Moï

Egiturak: Aldudarrak Bideo, Iparraldeko Ikastolak eta Hordago arte galeria

Horrez gain, auto ekoizpenen gunean, RESEDA Iparraldeko auto ekoizpen labela aurkitzen ahalko da (Maddi Oihenart eta SokaHots orkestraren lana banatuko duena).

Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar-en mahai nagusian ordezkatu da nahiz eta Iparraldeko berritasunak katalogo honetan aurkitzen ahal diren.

AGORILA
Productions Disks
www.agorila.com



ikas



maiatz.



ekar



SAROIÀ

Moï Moï

HORDAGO
GALERIE D'ART

DURANGOKO AZOKA #50 2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra

IPARRALDEKO KATALOGOA

Iparraldeko egituren berritasunak

Euskal kultur erakundeak Iparraldeko argitaletxe eta disketxeen ekoizpenak aurkezten ditu Gerediaga elkartearen laguntzarekin

Durangoko azoka 2015

50. edizioa "Kulturaren plaza" lemapean

1965ean sortu zenetik, Gerediaga elkarte antolatzaileak Euskal Herriko liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea du helburu Durangoko azokan. Urtero, euskalgintzan diharduten eta euskalzale guzien topagune bihurtu da.

Durangoko Azokak urteurren borobila ospatuko du aurtengo edizioan. Kulturaren plazak 50 urte beteko ditu: 50 urte euskal kultura gerorutzen, 50 urte idazten, kantatzen, gogoetetzen, gozatzten, eztabaidatzen, ospatzen. 50 urte... eta beste 50 urte euskal kultura bizitzen!

Euskal kultur erakundeak, Gerediaga elkartearen partaidetzarekin, bederatzirteko daramatza Iparraldeko argitaletxeen eta disketxeen presentzia segurtatzen Durangoko azokan; gure lurraldeko eskaintza kulturala gehiengoari ezagutarazteko. Aurten ere, Agorila eta ZTK disketxeak; Elkar, Gatuzain, Ibas eta Maiatz argitaletxeak, Iparraldeko Ikastolak eta Kanaldude web telebista egiturak azokan aurkituko dira Iparraldeari dedikatua den espazioan (Goienkale 22-34). Aurten, partaide berriak sartuko dira taldean: Zortzikoko argitaletxea, Moï Moï ekoizpen labela, Hordago arte galeria eta Saroia ekoizpen labela. EKEn mahainarekin 12 parte hartzaile iristen dira Iparralderik! Inoiz baino gehiago!

Datak: 2015eko abenduaren 4tik abenduaren 8ra.

Ordutegia: Egutegia: 10:30 - 20:00

Sartzea: dohainik.

Kokapena: Landako gunea (3 700 m²)

Webgunea: www.durangokoazoka.eus

2015eko kartelaren sortzailea: Jose Luis Zumeta

2015eko Argizaiola saria: Durangoko Azokako sortzaileak

Ikasleen eguna: aurten lehen egunean, abenduaren 4an iraganen da, ostiralarekin.

2015eko ediziorako datuak

- 249 erakusmahain
- 350 berritasun: 228 liburu, 63 disko, 19 aldizkari, 18 argitalpen elektronikoko
- 250 ekitaldi : kontzertuak, solasaldiak, proiektzioak, haurrendako jarduerak, tailerrak, ikuskizunak eta abar
- Aurrekondu orokorra : 750.000 €

AURKIBIDEA

LIBURUAK

6

DISKAK

10

DVD-ak

13

BESTELAKO EKOIZPENAK

14

DURANGOKO AZOKA #50 2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra

IPARRALDEKO EKOIZPENAK

proposamen anitza eta aberatsa!

Orain duela bederatzita urte abiatu Gerediaga elkarte antolatzailearen eta Euskal kultur erakundearen arteko partaidetzari esker, Iparraldeko Euskal Herriko argitaratzaileen ekoizpenak argiago agertzen dira Durangoko azokan.

Urtero, azokan aurkeztuak diren berritasunen artean gutti gora behera %10a Iparraldeko ekoizpenak dira: 50 bat berritasun baino gehiago aurkitzen dira azokan urtero.

Azpinarra dezakegu aurten ere proposamen ainitza izanen dela Iparraldetik: ekoizpen kultural zabal bat aurkitzen ahalko da: produktu "klasikoak" diren liburu, diska eta DVD-etaz gain beste motako proposamenak aurkeztuak izanen dira baita ere: afitxak, biniloak, egutegiak, ...



LIBURUAK

ELKAR argitaletxea

Titulua: *Esperantza*

Egileak: Koldo Amestoy - Asisko Urmeneta

Generoa: Ipuin ilustratua
Argitalpena : Elkar (2015)

Euskal Herrian, zerumuga itsasoak eta mendiak partekatzen dute. Lekuko dugu, Donibane Lohizune itsasaldean bizitza osoa nabigatzen pasa duen "Esperantza" ontziaren eta Arbillak oihan hegian kokatua den "Inxausea" etxearen artean gertaezinezko elkartzearen ixtorioa. Esperantza Inxausetako intxaurrendoa izalpean, topaketa ezinbestekoa zen. Koldo eta Asiskok asmatu dute "Supaster" k ahalbidetu du.



Titulua: *Hainbat zorte*

Egilea: Mikel Dalbret - Maialen Hegi Luku

Itzultzailea: Maialen Hegi Luku

Generoa: Eleberria -
autobiografia

Argitalpena : Elkar (2015)

Liburu honetan bi istorio uztartzen dira. Bata fikziozko eleberri hutsa, euskal gazte baten bizitzaren ekitaldi tragikoa. Paraleloan bestea, autobiografikoa, Mikel Dalbretena, autorearen bizipenak. Irakurketak aitzina egin ahala, irakurleak bi zatien arteko hainbat oihartzun, hainbat eite, hainbat lokarri irudikatzen ahalko ditu. Hala ere, bi hitzez, liburu honen aipatzeko, esan daiteke Euskal Herriari maitagune aitormen bat dela.

Euskarazko bertsio hau, pianisten gisan, partizio beretik sortua izan da. Obra berezi hau Maialen Hegi-Lukuk eta Mikel Dalbretrek beren adierazpenak doinuaz ezarritz idatzi dute.



Titulua: *Hilak gure artean*

Egilea: Anuntxi Arana

Generoa: Ikerlana

Argitalpena : Elkar (2015)

Heriotza bukaera dela pentsatzea zaila da eta ez dira falta horretarako arrazoiak; nekez onartzen da, eta ez da erraz irudikatzen nola igarotzen den izatetik ez izatera. Hilan bilakaerak bizien gogoia arduratu eta arduratzen du, eta maiz igaritzen da haien itzala jendeen kontuetan. Modu berezi batez mitologian, hemengoan eta besteetan. Kondairak ez dira baitezpada mintzo heriotzaren aurrean sentitzen den minaz, bai berriz munduan alderrai dabiltzan arima herratuez eta haien agerpenez, laguntza eske edo erasoan datozenean zer komeni den egitea adieraziz eta erakatsiz. Hilak, tradiziozko sinesteak eta mitologiaren arteko loturan aipatzen digu Anuntxi Aranak bere lan berrian.




Titulua: *Nafarroan filosofatuz*

Egilea: Piarres Aintziart

Generoa: Saiakera

Argitalpena: Elkar (2015)


Piarres Aintziart-ek liburu berri horrekin, "Nafarroa anitzaren" aurpegi batzu marraztu ditu, bidearen eta hitzaren arteko ezkontza bat bezala moldatu nahiz. Santiagoko Bidea, Orreagatik Bianara, Bardeak, Tuter, Ebro emankorraren bazterrak..., hainbat leku markatu duten pentsalari batzuekin jostatu da. Plazer hutsez.



MAIATZ argialetxea


Titulua: *Esku aldunaren gakoa*
Egilea: Agurtzane Andueta
Generoa: Arte liburu, poesia.
Argitalpena: Maiatz (2015)

Nortasunaren bilaketa kondatzen digu autoreak erakutsia bakoitzaren barnean dela, marrazki eta pinturek lagundurik.



Titulua: *Euskera Erderak*
Egilea: Eñaut Etxamendi
Generoa: Hizkuntzalaritza lan zientifikoa
Argitalpena: Maiatz (2015)

Euskara eta hizkuntza indo-europarren arteko ahaidetasuna erakusten ditu autoreak, konparaketa lan zehatzaren bidez.



Titulua: *Bidean kantaltsez*
Egilea: Jean Louis Davant
Generoa: Olerkiak
Argitalpena : Maiatz (2015)

Biziaren khantore zabala agertzen da liburuan bizian zehar gertatu topaketa eta sendimenduek ontu oroimenarrekin, bere lurra eta mundua uztartuz.



Titulua: *Ultimes déchets*
Egilea: Itxaro Borda
Generoa: Polizi eleberri elebiduna
Argitalpena: Maiatz (2015)

Detektiba hiper rurala den Amaia Espeldoioren abentura berri hontan ondarkinen infernuan sartzean gara krima ilun baten argitzearekin batean.




Titulua: *Elektroxok*
Egilea: Xabier Soubelet
Generoa: Olerkiak
Argitalpena: Maiatz (2015)

Arte librearen ezinbestea aldarrikatzen du autoreak sorkuntzaren ikuspegi ofentsiboa agertuz; eboluzioaren bideetarik.




Titulua: *Oroit hadi*
Egilea: Pierre Mestrot
Generoa: Polizi eleberria
Argitalpena: Maiatz (2015)

Hirugarren eleberri hontan autoreak Euskal Herriko drogaren infernuan sartzen gaitu dealer eta biktimak, eta kudeatzailerik okaztagarrien artean.




Titulua: *Kaskarin baten kontakizunak*
Egilea: Joseba Aurkenerena
Generoa: Elelaburrak
Argitalpena: Maiatz (2015)

Bere aita kondalariaren oroimenetik dabil autorea, Donostiako umore jorraztailearen bidez.




Titulua: *1914-1918 Lekukoak*
Egilea: Patri Urkizu
Generoa: Historiaren memoria.
Argitalpena : Maiatz (2015)

Gerla Haundia agertzen da hemen orduko lekukoak hitzekin: erreportaiak, trantxetan idatzu gutunak, kantuak, bertsuak edo antzerkiek orduko trajediaren berri hungikigarria azaltzen dute.



Titulua: *Maiatz 60 eta 61*
Egileak: Kolektiboa
Generoa: Literatur aldizkaria
Argitalpena : Maiatz (2015)

Maiatz literatur aldizkariak, 1982a geroztik, bide berdineterik dabilta, sorkuntza garaikidea agertuz, elebur, poesia, saio edo kronikak bilduz, hemengo euskalkien bizi eta azalpen ahalak baliatuz, gaurko mundua aipatuz.



HORDAGO Arte galeria

Titulua: *Mattin Partarrieu*
Egilea: Mattin Partarrieu
Nolako ekoizpena: Hordago arte galeria (2015)

Mattin Partarrieu margolariak 2002 eta 2010 urteen artean egin obrak biltzen dituen liburu elebiduna.



IKAS pedagogia zerbitzua

Titulua: *Aingeru galduaren bila*
Egilea: Max Ducos
Itzultzailea: Maritxu Rivière eta IKASeko lankideak
Jatorrizko izenburua : L'ange disparu (*Sarbacane* argialetxea)
Generoa: Haur literatura 8 urtetik gora
Argitalpena: Ikas Pedagogia zerbitzua (2015)

Haur ameslari bat galtzen da arte ederretako museo batean, eta abentura fantastiko batean murgiltzen da obra batzuetan barna. Gaiak : arte bisualak



ZORTZIKO argialetxea

Titulua: *Lepo-ondo gogor*
Egilea: Gabi Mouesca
Generoa: Lekukotasuna
Argitalpena : Zortziko (2015)
Hizkuntza: Argitalpen berri bat euskaraz eta bat frantsesezko edizioaren eguneratzea


2006. urtean argitaratu zuen «La nuque raide» liburuan Gabi MOUESCAK azaltzen zuen bere ibilbidea, gizona eta militante bezala. Liburu honek jende asko lagundu du ulertzea Iparretarrek mugimenduaren engeiamendu politiko-militarra, bai eta ere Euskal Herriko eta euskal gizarteko

emantzipazioaren alde lan egiten duten jenden egiazko motibazioak ulertzea.

8 urte berantago, Gabi MOUESCA La nuque raide liburuaren argitalpen berri eta aberatsago bat ateratzen du, garai horretan ukan zuen esperientzia azalduz, pertsona eta militante bezala.

Argitalpen berri honek eramanen gaitu Presondegietako Nazioarteko Behatokia (Observatoire International des Prisons - OIP) izan zuen ekintzara, lehendakari gisa, baina ere bai Emmaüs France erakundearen izan zuen bi urteko egonaldira. Eta azkenik Gabik, mintzamolde garbi batez, azalduko du Senatuko hauteskundeetan izan zuen kandidaturaren zergatiak, bai eta ere Euskal Herrian bidean den bake prozesuan duen engaiamenduaren zergatia.

Gizon baten biziaren bidez, liburuak da borroka zenbaiten lekukoa, suntsitzen duen presondegia kontrako borrokarena eta Euskal Herriko askapenerako borrokarena.



Titulua: *Aitorren ametsa - Le rêve d'Aïtor*

Egilea: Marie-Christine Thiry Merlo

Generoa: Komikia

Argitalpena: Zortziko (2015)


Hizkuntza: Argitalpen bat euskaraz eta bat frantsesez

Marie-Christine Thiry Merlo, zeramikalari eta margolariak, Aitor joaldun-surfariaren abentura dardaratsuak irudi oniriko eta

kolorotsuetan kondatzen dauzku: egun batez Neptuno, itsasoaren Erregeak, Euskal Kostaldeko zaintzale sutsuak, huni bere biziko misio ospetsuena gomendatzen dio, ordu arte hain goxo eta ametssezkoa zeramala.

Aitorrek beharko ditu izpiritu gaiztoak haizatu, batez ere Detritus lotsagarriarena, Printze Ilun munstroa, Urdin Haundia kutsatzen duen hondakinzalearena, uraren baitan duen indar kaltegarria gero ta gehiago zabaltzen duena...

Idazle-marraskilariak pertsonai erakargarrien poesia eta pikareskogoa intriga jostalari batean nahasten ditu, ttuntunroz eta roller coasterrez fan den mutiko gazte baten uste gabeko bilaketa kondatzen daukula!



Titulua: *Deklinabide Baigorri*

Egileak: Michel Oronos - Jean Haritschelhar - Christian Velez

Generoa: Hizkuntzagintza eta arte liburuak

Argitalpena: Zortziko (2015)

Hizkuntza: Argitalpen bat euskaraz eta bat frantsesez

Euskararen omentzeko egina den liburuak, Baigorri dela deklinabidearen ereduak!

Hasteko, Deklina : lehen zatia Michel Oronosek, bertsu laxotan, kasu bakotxari eskainia, umorez eta bihotzez. Gero, Bide : olerkari eta pentsalari zenbaiten testu zama pollit bat «bidea» loretzen dueña. Gaineratik, Deklinabidexka : manera beretik Jean Haritschelharren aterabidea. Azkenik : Christian Velezek asmatu antolatze

grafiko berezia, oro har arte liburu bat, irakurlea harrituko eta xoratuko duena.



ZTK ekoizpen etxea

Titulua: *Iheslea*

Egilea: Marcel Proust


Itzultzailea: Jean Baptiste Orpustan

Jatorrizko izenburua: *A la recherche de temps perdu - La fugitive*

Generoa: Eleberria

Argitalpena: ZTK (2015)


Swanen etxean aldean eta *Guermantesko aldean* itzuli ondotik, Marcel Proust-en obren itzulpen berri bat proposatzen digu Jean Baptiste Orpustanek.



Titulua: *Bankako Mehategiak*
 Egilea: Gilles Parent-en
 zuzendaritzapean
 Generoa:
 Argitalpena: ZTK (2015)



Titulua: *Haikuak*
 Egilea: Jean Lissar, Christine
 Etchevers
 Generoa: Literatura
 Argitalpena: ZTK (2015)



Titulua: *Ilargi nahia*
 Egilea: Paxkal Indo - Mikel Alkoz
 Generoa: Haur Literatura
 Argitalpena: ZTK (2015)



DISKAK

AGORILA disketxea

Titulua: *Katedrala*
 Egilea: Oldarra
 Ekoizpena: Agorila (2015)

Abesbatzaren musika nortasuna indartzenduendiska. Arramoldatutako abestiak, agortuak diren grabaketa batzuetatik ateraiak obra berri batzuekin, osatuak izan dira.



Titulua: *Chante Luis Mariano*
 Egilea: Michel Tellechea
 Ekoizpena: Agorila (2015)

Pierre Tarbouriech (Bateria), Philippe Lagrange (Gitarra, baxua), Gérard Luc (eskusoinua, teklatura) lagunek lagundurik, Michel Tellechéa Luis Mariano-ri omenaldia egiten dio. Grabaketa hori Luis Marianoren laguna izan den Claude Besset-i zuzendua da (Baionako besten orkestra).



Titulua: *Gure Lurra*
 Egilea: Gaztelu Zahar
 Ekoizpena: Agorila (2015)

Gaztelu Zahar, Hendaiako gizon abesbatzak, 1 :30orduko diska bikoitza plazaratzen du. 38 tituluengr abatzen lortzeko izugarrizko lan bat egin ondoren. Bi diska hauekin, taldeak erreperitorio klasiko berrikusten du, baina baita ere kantuegile garaikideen lana, eta obra batzue bereziki arramoldatuak izan direnak Gaztelu Zahar-entzat (Busto, Elberdin, Zugarramurdi...).



Titulua: *Live / Zuzenean*
 Egilea: Izarrak
 Ekoizpena: Agorila (2015)

Izarrak taldearen zuzenezko kontzertuaren grabaketa.



Titulua: *First Cube*
 Egilea: Les Amis'Kutzars
 Ekoizpena : Agorila (2015)

18-36 urte arteko musikari lagun tropa horrek bere lehen diska aurkezten du: First Cube. Barnean, abesti moderno ezagun batzue entzungai dira banda baten moduan emanik:

hala nola Thriller (Mickaël Jackson), I want you back (Jackson 5) Know your enemy (Green day). 11 musikariek ez ohizko proposamen arrakastatsu bat proposatzen dute.




Titulua: *Libre Izan*
Egilea: Hiru Soinu
Ekoizpena: Agorila (2015)

Hiru Soinu taldea sakonkiago ezagutzeko parada izanen du publikoak diska berri honekin. Hala nola, testu eta musika guziak taldeak berak egin ditu. Kide bakoitzak bere inspirazio personala libreki airatzen utzi ahal izan du.



Titulua: *Chœur d'hommes de Bayonne*
Egilea: Pottoroak
Ekoizpena: Agorila (2015)

Bere 45 urteurrenaren karietara, Pottoroak bere lehen diska plazaratzen du.



Titulua: *Kantu kanta kantore*
Egilea: Buhaminak
Ekoizpena: Agorila (2015)

Sophie Larrandaburuk zuzendu Baionako emazte abesbatza honek, euskal (eta bereziki Xiberotar) kantak baita espaniolak, afrikarrak eta brasildarrak interpretatzen ditu.



Titulua: *Gure Iguzkiak*
Egileak: Gorka eta Marc
Ekoizpena: Agorila (2015)

Disko hau topaketa baten, anitz urtetako adiskidetasun zintzo eta kidetasun artistiko eta musikal baten ondorioa da. Kantu hauek dira Gure Iguzkiak. Familian edo lagun artean kantatzen direnak eta gaur zuentzat opari bezala ditugunak.



Titulua: *40ème anniversaire*
Egilea: Chœurs Basques Goraki
Ekoizpena: Agorila (2015)

Taldearen 40 urteurrenaren karietara, Donibane Lohizuneko abesbatza mixto honek 17 a cappella diren tituluz osatutako diska plazaratzen du. Abestien herena Goraki taldeak berak konposatuak ditu.



Titulua: *Elgarren Zoriona*
Egilea: Gérard Luc
Ekoizpena: Agorila (2015)

AGORILAK grabatu zuen duela 20 urte bere lehen diska. Ekoizpen etxea eta artistaren arteko lana segitu da urte hauetan zehar.

AGORILA
Productions Disks
www.agorila.com

ELKAR

diskak

Titulua: *Joan ihes egin baino lehen*

Egilea: Begiz Begi

Ekoizpena: Elkar (2015)

2015eko ekainean ateraturako azken diskoaren titulua Joan ihes egin baino lehen da. Disko honek taldearen unibertsoan murgiltzen gaitu eta tradiziozko euskal erritmoak asma ezinezko lekutara helarazten ditu. Bost urtez musikari horiekin osaturik, taldea geldi gabe berrikuntzen bila dabil, izan soinu experimentazioan ala proiektu desberdinetan.



Titulua: *Belatxa*

Egilea: Jean Michel Bedaxagar

Ekoizpena: Elkar (2015)

Belatxa izenburuaz argitaratuko da Urdinarbeko kantariaren disko berria, ohi duenez, zuberotar tradizioaren arrastoetan beti, kantutegiaren bitartez, sustriarekin lotzen gaituzten katebegi horiek argitzeko eta transmititzeko ahalegin bikaina eginez. Mixel Etxekopar zuberotar sortzailearen laguntzaz, kanten bitartez kontakizun ederra lortzen du Jean Mixelek, naturaren usainak eta katurako dohainak bor-borka eta eskuzabal eskaintzen.




MOÏ MOÏ records

Titulua: *Lumi*

Egilea: Lumi

Ekoizpena: Moï Moï (2015)

Lumi elektro-folk bikotea da, 2014an sortua. Alde batetik, ahotsean eta gitarra elektrikoan, Nahia Zubeldia (Unama -folk-) eta Sohano -pop/folk- taldeetan ibilitakoa. Bestetik, Manu Matthys, musika elektronikoko ekoizlea, bakarlari gisa aritzeaz gain, Odei (elektro) musika taldeko kide ere badena. Kontzertuz kontzertu, elkar ezagutu arau, bien munduak uztartzen joan dira, eta euskarazko hitzak soinu elektronikoz jantzi dira.



Titulua: *Death Visions*

Egilea: Radiator

Ekoizpena: Moï Moï (2015)

Euskarria: Diska + binilioa

Radiator, Donibane Lohizuneko Peioik (bateria) eta Bordaleko Vincentek (gitarra, ahotsa) osatzen duten bikotea da. Moï Moï records labelaren laguntzarekin 2015ean atera dute haien lehen diska.



Titulua: *Massacrison*

Egilea: Polygorn

Ekoizpena: Moï Moï (2015)

Polygorn-ek Electro-Kraut-Space-Rock planetaren zehar segitzen du bere bidea. Panda Valium (Moï Moï Records) ekoizlearen soinu elektronikoz lagundurik, Pollux-en (ex Willis Drummond / Sparteens / Golgoth13) Telekasterraren oihuek, Elorn-en danborrez osaturiko oihan trinkoaren danbadek eta Igor (ex Elefunkman) baxujolearen orroek espaziobidai batera gonbidatzen gaituzte aldira. Lapurtarrek, tresna elektronikoko eta ohiko instrumentuen soinuak elkarrekin bilduz, erritua kosmiko kutsua duen beraien lehen diska argitaratuko dute uda honetan bertan.



RESEDA

labela ZTK ekoizpen etxea

Titulua: *Doi*

Egilea: Maddi Oihenart eta SokaHots orkestra
Ekoizpena: Reseda (2015)

Maddi Oihenart eta bere lagun Sokahots musikariekin ateratzen duen azken diska da. SokaHots Orkestra Zanfona, gitarrak, txeloa, kontrabaso...tresnak nahasten dira armonia eta oreka eder batean. Itxaro Borda, bai Leire Bilbao eta ohizko kantuak lotzen dira sensible den bilduma honetan.



SARROIA

labela

Titulua: *b-aldeak*

Egilea: Kalakan
Ekoizpena: Sarroia (2015)

Ahotsa, gizaren soinuetarik lehena, hunkigarriena, pertsonalena, sakonena. Hortan oinarritu nahi du Kalakanek 5 tituluko disko gehigarri huntan, « ELEMENTUAK » diskoaren "b_aldeak" erakusteko moduan.



Titulua: *Gure etxen badira*

Egilea: Behi Bideko Andere Xuriak (BBAX)
Ekoizpena: ZTK (2015)



Titulua: *Hasierak*

Egilea: Mara
Ekoizpena: ZTK (2015)

Mara, 20 urteko kantautore hasiberria dugu. Muskiztarra, (Euskal Herriko azkeneko mendebaleko herria) Barakaldoko Haladzipo musika eskolan bere lehen kitarra akordeak ikasi ditu. Bere hitzak oso pertsonalak dira, Bere inguruari lotuak. Ortuellako preso bat ekartzen du gogora, borroka feminista, etab.



Titulua: *Oskorri kantatuz*

Egilea: Aldudarrak elkarte
Ekoizpena: ZTK (2015)



DVD - a k

Aldudarrak

Bideo

Titulua: *Oskorri kantatuz*

Egilea: Aldudarrak elkarte
Ekoizpena: Aldudarrak Bideo (2015)

Oskorri kantatuz kantaldiak Oskorri euskal taldearen kantu famatuena entzuteko parada eskaintzen du. Proiektu hori, Aldudarrak elkarteak du abiatu. Hirurogei bat kantari bildu ditu, bereziki Aldudeko araneokak, eta lau musikarik lagundurik hogoi bat kantu interpretatzen dituzte. Senpereko Larreko kultur gunean 2014ko urriaren 26an eskaini duten kantaldi osoa ikusgai DVD huntan. Baina ere Alduden eskaini duten oinarrizko kantaldia ere berriz entzuten ahal da kutxa hortan aurkituko duzuen kDetan.



Titulua: *Lhande Pastoral*

Egilea: Zalgiruri elkarte

– Aldudarrak Bideo

Ekoizpena: Aldudarrak Bideo
(2015)

Zalgize eta Iruri, bi herriak bildu dira aurten Pierre Lhande pastoralaren prestatzeko. Uda huntan filmaturik, aurtengo Pierra Lhande pastoralaren DVDa prest da. Pierra Lhande euskaltzain ezaguna zen, hiztegi baten idazlea, nahi izan du euskal kultura ezagutarazi bere idaz lanetan bai eta eleberri, ipuin, mintzalde, elestaldi eta irrati eletan.



Titulua: *BAKÜNA SHOW*

Xiberoko dantzatik abiatüz...

Egilea: Kompany Beritza

– Aldudarrak Bideo

Ekoizpena: Aldudarrak Bideo
(2015)

Kompany Beritza-k ekoizturik, Xiberoko dantzari eskoletako hamabi gazte aurkeztu dute dantza balet bat. Edu Muruamendiara koregrafoaren laguntza baliatu dute xiberoko ohiko dantzetarik urrunago joaiteko, tradizioa eta gaurkotasuna uztartuz. Xibero ausart eta moderno baten leinurua izan nahi du sorkuntza honek. Kanaldudek Mauleko Jai Alaian, 2014ko azaroaren 7 eta 8an egin den ikusgarria grabatu du eta DVD batean eskaintzen dizue.



BESTELAKO EKOIZPENAK

SEASKA

Titulua: *Ikastolen egutegia*

Egilea: Seaska

Nolako ekoizpena: egutegia

Urte guziz bezala, Seaskako egutegi berriak euskal izenak zerrendatzen ditu. Aurtengo edizioaren orrialdeak Kepa Etchandy argazkilarik famatuaren irudiekin apainduak dira.



HORDAGO Arte galeria

Titulua: *Afitxak*

Egilea: Mattin Partarrieu

Nolako ekoizpena: Hordago arte galeria (2015)

Mattin Partarrieu margolariaren obren afitxak.



50.

DA!

DURANGOKO AZOKA #50 2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra
IPARRALDEKO BERRITASUNAK 2015



Lota jauregia BP6
64480 UZTARITZE
Tel: (0033) 5 59 93 25 25

www.durango.eke.eus

Harremanetarako:

Maia Etchandy | maia.etchandy@eke.eus
Frank Suarez | frank.suarez@eke.eus

EKEren mahaina Durangoko Azokan : Goienkale 27-28
Iparraldeko egiturak: Goienkale 22-34